


TicketBAI sistema berria, aztergai

Dendari, ostalari eta salmentan oinarritzen diren negozioentzat aldaketa garaia dator. Foru Ogasunak sustatuta, TicketBAI sistema ezarriko da / 16



Gipuzkoako bertsolari gazteen finala Urnietako Saroben jokatu da, ostiral honetan / 11



Zirkoa, bertsoa, antzerkia, musika edo dantza, asteburu honetan Andoainen zein Urnietan / 14-15



Herri-bideen sarea

86 herri-bide daude Andoainen; 103 kilometro denera / 2-3



**TOLARE SAGAR DOTEGIA
URNIETA**

**943 552-744
647 437 703**

www.eulasagardotegia.com

**INGURUNE
NATURAL BATEAN**

- Maiatza eta ekaina osoan zehar irekita.
- Ostiral, larunbat eta igande eguerditan, 13:30etik aurrera zabalik, ENKARGUZ.





Artzabal herri bidea Buruntzan, 633 metrokoa. Derrepente baserrian hasita aldapan gora doa. Hortik aurrera, San Rokeko ermitara gailurrera nahiz Urnietako lur sailletara eta Azkortekeko ermitara iristen da. AIURRI

86 herri-bide, 103 kilometro denera

Andoaingo Udalbatzak landa eremuko herri bideen sarearen inbentarioari behin betiko onespenera eman zion 2020ko maiatzaren 28an. Conchi Uriarte nekazal teknikaria da memoriaren egilea; Gipuzkoako beste hogeitabat herrien memoriak egin izan ditu aurretik

Xabier Lasa ANDOAIN

Ramon Varela Andoaingo udaleko Ingurumen teknikariak eta biek landa-eremuko herri-bide publikoen inbentarioari buruzko azalpenak eman dizkigute. **Zer ulertzen dugu herri bidea aipatzu gero?**

Conchi Uriarte: Edonor pasa daitekeen bidea da herri bidea, printzipioz. Leku bat beste batekin lotzeko zentzua eduki du

herri bideak, historian zehar; esate baterako, baserri edo lursail batetik bestera joateko. Herritarrek bide horiek beti erabili izan dituzte beren zereginetarako, baita elkarrekin ere komunikatzeko; badago tradizio bat horien atzetik. Horrela, herriaren ondarea da herri bide bat.

Ramon Varela: Conchik aipatu duen bezala, tradizioari daude

lotuta herri bideak. Batez ere baserri giroan, zentzu utilitarioa eman zaie: garoa garraiatzeko, eliz-bide eta gorputz-bide gisa, errege-bide gisa... Erabileraren erabileraz, baserritarrek ondo identifikatu izan dituzte berarekin daukaten izaera publiko-gatik.

Zer dela eta egin da herri-bideen inbentarioa, eta ondoren onartu udalbatzan?

R.V.: Udalak lehendik egin zuen inbentarioa, baina tramitazio publikorik ez zen egin berarekin. Herritarrei ez zitzaieen erakutsi, eta ondorioz, jendea guregana kexatuz hurbiltzen zen, "hau eta hori zergatik onartu duzue?" galdera luzatuz. Alde horretatik bazeukan zilegitasun falta, eta orain, legezko zilegitasunaz gain soziala ere irabazteko bidean jarri dugu. Gainera, garrantzi handiko tresna daukagu eskuartearen etorkizunerako, herri bideen ondarearen arloan.

Memorian metodologia aipatzekoan, dokumentazio idatziaz gain, ahozko testigantzak jaso direla zehaztu da.

C.U.: Landa-inguruetako bizilagunekin elkarrizketak egin ditut, bai, batez ere bide horiek ezagutu eta erabili ahal izan dituztelako. Baserri giroan ibili naiz, eta normalki jendeak harriera ona egin dit, errespetuarekin. Argi uzten nien nik ez nuela Udalaren interesa defendatzen, nire zeregina modu inpartzial batean bideei buruzko ahalik eta iturri gehienak biltzea, horiek kontrastatzea, titulartateak akreditatzea, eta puzzle lana eginez, ondoriorik objektiboena ateratzea zela. Denetari-

ko erantzunak jaso nituen, baina gehienek segituan ulertu zitadaten zertan nengibilen; haiengana hurreratu izanagatik eskertzeaz gain laguntza handia eskaini zitadaten.

Herritarrek aurkeztu al zituzten alegazioak, memoriaren azalpen publikoa egin zenean?

R.V.: 13 alegazio aurkeztu ziren. Batzuen batzuk planoak, fakturak eta beste zenbait agiri aurkeztu zituzten; horiek aztertu ostean, batzuenak kontuan hartu ziren. Azkenean, 13etatik bik administrazioarekiko auzi-prozesuaren bidea hartu dute, Leizotz eta Sorabillako auzoetan kokatuta daudenak. Aspalditxotik enkistatuta dauden kasuak dira bienak, eta epaitegietan erabaki beharko dira.

C.U.: Azken urtetan beste herrietan edukitako eskarmentuak esaten dit %2a bilakatzen dela gatazkatsu, eta Andoaineko kopuru hori bete da gutxi asko. Azken batean, ehundik gora kilometroetatik, liskartsuak bi kilometrorara ez dira iristen.

Zein balorazio egiten duzue zerrendatu dituzuen herri bideen inguruan?

C.U.: Orohar, Andoaineko herri bideen sare aberatsa daukala esan daiteke. 98 herri bide zehaztu dira, guztira 103 kilometroko sarea osatzen dutenak. Horietaz aparte, erabilera pribatuko bi herri bide daude, harrobi zaharrera eta Rezolako harrobira doazenak, eta, erabilpen publikoa duten jabari pribatuko beste bi, Sagastiondotik Ubillotsera doan bidea (Renfe da jabea), eta, Lekunategitik Xoxokara doana. Salbuespenak dira lau kasu horiek, eta bide-zortasuna ("servidumbre de paso" delakoa) aplikatzen da horietan.

R.V.: Gainera, nabarmendu behar du gure andoaindarrak pribilegiatu samarrak direla, kalean bizi direnak batez ere. Izan ere, tamaina politeko herria da Andoain; urbanistikoki herrigunea nahiko bilduta eta naturaz inguratuta dago, eta oinez ibiltzeko edozein herri bidetan barrena murgildu zaitezke etxetik abiatuta, autoaren beharrik gabe. **Herri bideak, herri ondarea?**

**"GEROZ ETA KEXA
GEHIAGO ARI NAIZ
ENTZUTEN
BASERRITARREN
ALDETIK"**



Ramon Varela Udaleko ingurumen saileko teknikaria eta Conchi Uriarte nekazal teknikaria. AIURRI

R.V.: Inbentarioa aurrez aurre daukazula jabetzen zara benetan, zenbaterainoko altxorra daukan herriak. Eta ez hori bakarrik, gero landa-gunean zabiltzala eta leku edo paraje batetik bestera joan nahi duzunean, eta ezinbestekoak dituzunean bide horiek... Gure arbasoek erabilera jakin batekin lotu dituzte bide horiek historian zehar, eta egungo gizarteak bestelako erabilerak erantsi dizkie, kaletarren aisialdi eta mendiko paseoekin ari dira lotzen gero eta gehiago.

Pandemiak gure herrian dauzkagun bide eta naturguneak deskubritzea eta baloratzea eragin du.

C.U.: Azken 20 urtetik hona datarren fenomeno da, eta gehitu egin da orain bizi dugun osasun krisiaren eraginez. Izugarritzko aldaketak gertatzen ari dira herri bideen erabileraren arloan. Lehen ez zegoen internetik ez GPSrik, ez zen mendi korrikalaririk ezta lasterketarik antolatzen, bizikletan jende gutxi animatzen zen... Egun, geroz eta kexa gehiago ari naiz entzuten baserritarren aldetik, orain arte bizi izan duten bakea galdu dutela-eta: bizikleta zaleak eta korrikalariak abailan, oinezkoak

"MENTALITATE ALDAKETA EGON DA BASERRIRA BIZITZERA JOAN DIREN ZENBAIT KALETARREN ALDETIK"

zakurrak aske dituztela... Gogoratzen naiz azken elurtea zela-eta, zein deigarria izan zen ENBA nekazarien sindikatuaren oharra egunkarietako lehen orrialdean, kaletarrei errespetua eskatuz.

Eta ez zaie arrazoirik falta. Izan ere, kaletarren artean badago uste duenik edozein bideetatik joateko eskubidea daukala GPSak markatzen diolako, edo besterik gabe, hala nahi duela. Hortxe hasten dira liskarrak, egin behar baita kontu pribatua dela Gipuzkoako lur sail gehiena, eta bide asko ez direla publikoak.

R.V.: Aldaketa horien artean, erantsiko nuke azken urteetan zabaltzen ari den mentalitatea, baserri girora bizitzera joaten diren zenbait kaletarrek jabetzaz daukaten kontzeptuarekin lotzen dena, batez ere. Izan ere, badira bakea bilatu nahian baserria erosi, eta bere lur-saila itxituraz inguratzen dutenak eta ez dutenak aintzat hartzen landa-eremuetan oso sustraituta egon den herri bideen filosofia komunitarioa.

Baserritarren auzolanari esker kontserbatu izan dira makina bat herri bide...

R.V.: Arrazoia duzu. Ahozko kontakizunek ez ezik udal artxiboko zenbait agirik ziurtatzen digute auzotarrek udalarekin nola egiten zuten tratua, batzuk esku-lana eta besteek obrarako materiala eta hamaiketakoa jartzeko. Andoainen auzolan

horren emaitzarik ikusgarrienetakoak, igual, Otietatik Idoia-gara edo Goiburura doazen gurdi bideak, galtzada moduko bi bideak izan daitezke, baserritarrek garo bila joateko ezinbestekotzat baitzituzten.

Zoritarrez, galbidean doa auzolanaren filosofia hori. Nagusitzen ari da txukunketa lanak Udalaren bizkar jartzeko joera. Hala ere, saiakerak sumatzen dira zenbait tokietan (Tolosa, Oiartzun...) berreskuratzeko usadio zahar hori. Tolosan, esate baterako, ordenantza jarri dute indarrean auzo bakoitzean auzokideak hainbat zereginez ardura daitezen.

Gomendagarria ikusten duzue herritarrek inbentarioaren berri zuzena eduki dezaten? Informazioa nahi duenak, nora jo behar du?

R.V.: Gomendagarria da, noski, bere ezagutza. Udaletxera ingurumeneko sailera jo dezakete, informazio zehatzaren bat nahi izanez gero edo eta memoria nahi badute. Nolanahi ere, herri bideak banan-bana zehazten dituen planoak paperan eta edozein formatutan nahi duenak, Urrats inprimategian lor dezake. **Ramon, inbentarioa etorkizunerako tresna baliagarria dela aipatu duzu lehen.**

R.V.: Egia da Udalarri aukera ugari ireki zaizkiola etorkizunerako, herri bideen mapa zehaztearekin. Hasteko eta behin, bide horien erabilerarekin lotutako ordenantza (oinezkoen jokabide

103 kilometroko bide-sarearen xehetasunak

- 38,3 km (%37) bide zolatuak dira. Asfaltoa eta hormigoia nagusi dira.
- 35,4 km (%34,1) orokorrean mendi bideak dira.
- 19,7 km (%19), egoera onean dauden lurrezko bideak dira, nabariak, garbiak eta pasatzeko modukoak.
- 5,2 km (%5,1) nabariak eta pasatzeko moduko lurrezko bideak dira, baina erabilera faltagatik edo landaretzagatik ixten hasi dira edo bidezidor bihurtu dira.
- 5 km (%4,8) lurrezko zorua duten bideak dira, egoera txarrean daudenak, bai landaretzak bertatik igarotzea eragozten duelako, bai desagertu direlako belardi bihurtu direlako.

Ahozko informazioaz gain, beste hainbat iturri idatziez baliatu dira memoria egiteko:

- 1997an Udaleko Ondasunen eta Eskubideen inbentarioa.
- Andoingo Udal artxiboa.
- 1942ko "Mapa Topográfico Nacional".
- Institutu Geografiko Nacionaleko planoak.
- Landalurreko Katastroa (poligonoen mugak markatzeko erabiltzen diren bideak).
- Ortoargazkiak.
- Jabetza Erregistroa.
- Dokumentu eta plano pribatuak.
- Tolosako Artxibo Historikoa.
- Inguruko Udalerrien herri-bideen inbentarioak.

Erabili diren irizpideak, bide bat inbentarioan sartzeko:

- Inguruko biztanleek herri-bide bezala onartzea.
- Bideak zeharkatzen dituen finkan mugakideen erregistroko finken deskribapenean bidearen erreferentziak azaltzea.
- Katastroan, IGNko planoetan edota 1942. urteko planoan azaltzea.
- Andoingo Udaleko Ondasunen eta Eskubideen inbentarioan eta aldameneko Udalerrien herri-bideen inbentarioetan agertzea.
- Bidea Udalak mantentzea.

zuzena, motordunen tona-kopuruaren mugatzea...) egin ahal izango dugu. Bestalde, badira beste zenbait ekimen ate joka datozkigunak. Besteak beste, mugarrien katalogoa egitea banan-banan koordinadak finkatuz;

ezinbestekoa izango da herri mugakideekin hitzegitea horretarako. Baita ere, memoriak egoera kaskarrean daudela aipatzen dituen bideak txukuntzea, herri bideen inguruko ibilbideak markatzea...



andoaINDARRA
euskaraz

POSTONTZIA

GIPUZKOAKO PENTSIODUNAK EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUKO PARTAIDE DA

Pentsio duinen alde

“Gipuzkoako Pentsiodunak, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko partaide den aldetik, Donostiako Alderdi Ederren maiatzaren 29an, 17:00etan, deitutako manifestazioan parte hartzera gonbidatzen zaituzte.

Onartezina da hiru urteko mobilizazioen ondoren lortutako konkistak arriskuan egotea eta pentsio publikoak, duinak, bidezkoak eta nahikoak bermatzeko urrats irmorik ez ematea.

Toledoko Itunak eta Kongresuko bozketak Pentsio Sistema Publikoa bideragarria dela agerian uzten duten arren, pentsioak murrizten ari diren erreformek bere horretan jarraitzen dute eta murrizketa berriei atek irekitzen zaizkie.

Pentsio publikoen sistema bermatu gabe igarotzen den egun bakoitzeko, pentsioak murriztu eta murrizketa berriak errazten ditu. Lan eta pentsio erreformak indargabetu gabe igarotzen den egun bakoitzeko, prekarietatea, desberdintasuna eta pobrezia areagotzen dira.

Maiatzaren 29an, Euskal Herrian, eragile sozial eta sindikal ugarik parte hartuko dute mobilizazioan, beraien egoeratik eta aldarrikapenetatik abiatuta. Iruñean, 18:00etan, Baluarte Plazan, Gasteizen, 17:00etan, Artiumen, eta Bilbon, 18:00etan, Jesusen Bihotzean.

Mobilizazio hori Estatuko beste herri batzuetako pentsiodunen plataformekin partekatuko da, eta bi helburu nagusi izango



Pentsiodunen martxa Urnietatik eta Andoaindik barrena pasa zen, astelehenean. AIURRI

ditu: batetik, Estatuko zein Erkidegoko erakundeei eskatzea gure aldarrikapenak bermatzea, eta, bestetik, indarrean dauden murrizketak eta ezarri nahi direnak berehala indargabetzea.

Eskaerak:

- 2011ko eta 2013ko pentsio-erreformen eta 2010eko eta 2012ko lan-erreformen murrizketak indargabetzea.
- 2021erako iragarritako murrizketa berriak eta Escriba jaunak sustatutako Pentsio Publikoen Sistemaren pribatizazioa gaitzestea.
- Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata 1.200 eurokoa izatea.
- Soldatetan eta pentsioetan genero-arrakalarekin amaitzea. Ezkontidearen pentsioaren %100 alarguntza-pentsiorako.

- Erretiro aurreratua, Kongresuan eta Legebiltzarrean onartutako legez besteko proposamenen arabera.
- Pertsonen bizi-baldintza duinak eta osasun-zerbitzu publikoak eta zerbitzu sozio sanitarioak izateko duten eskubidea bermatzea.

Era berean, pertsona garen aldetik bizi-baldintza duinak izateko dugu eskubidea osasun-eta soziosanitario-zerbitzuekin ere lotuta dago, eta, horregatik, eta gure osasuna bermatzeko, mendekotasuna zaintzeko eta artatzeko zerbitzuak eskatzen ditugu, kalitatezkoak, publikoak, komunitarioak eta unibertsalak. Gobernatzaren duenak gobernatu, pentsio publikoak defendatu! Pentsio, soldata eta bizitza duinak gizon eta emakumeentzako. Aukera berdina guztientzako!!”.

POSTONTZIA

EH BILDU ANDOAIN

Ilusio berberarekin

Maiatzaren 26an bi urte bete dira 2019ko udal hauteskundeak modu nabarmenean irabazi genituenetik. 8 urtez Andoaingo Udala gobernatzen egon eta gero, herritarren babes zabala jaso genuen. Eta EHBilduren emaitzarik onena ez ezik, Andoainen inoiz hautagaitza batek lortutako boto kopuru handiena jaso genuen. Ordutik hona egin diren hauteskunde deialdi guztietan EH Bildu lehen indar politikoa izan da. Andoaindarrengan konfidantza handiena sortarazten duen indar politikoa gara, bai udal hauteskundeetan zein beste erakundeetan ordezkatuak izateko. Ez dago sari handiagorik politika egiteko modu zintzo eta gertuko bat dagoela pentsatzaren dugarontzat.

Bi urte hauetan denetarik bizi izan dugu, hauteskundeak irabaztearen gozua eta inbestiduran alkatetza ez eskuratzearen gazia. Oposizioaren lan nekeza egitea batzuetan baina baita ere gure proposamenak aurrera ateratzen direla ikustearren poza bestetan.

Azken urtea oso gogorra izan da. Denontzat. COVID-19ak pentsa ezin genezakeen egoera bat ekarri digu. Egoera horretan ere EH Bilduk herritarrengandik

"ANDOAINDARRENGAN KONFIDANTZA HANDIENA SORTZEN DUEN INDAR POLITIKOA GARA"



gertu egon nahi izan du. Eta herritarren beharrak izan dira gure proposamenen erdigunean, batzuetan arrakastaz aurrera atera eta besteetan mespretxuz baztertu badituzte ere.

EH Bilduk 10 urte bete ditu aurtengo maiatzaren 10 urte baino ez. Egoera ezberdinak kudeatzea tokatu zaigu 10 urte hauetan, baina beti gure onena eman dugula esan dezakegu. Ez genuen herritarrekin kontaktua galdu gobernuan ginenean eta ez gara besoak jeitsita egon orain oposizioan gaudela. Beti jarrera eraikitzailea izan dugu. 2019ko maiatzaren 26ko gauean genuen ilusio berberarekin jarraitzen dugu. Eta horrela ekingo diogu agintaldiaren azken bi urteetan ere. Hori da ziurtatu dezakegun gauza bakarra. Ilusioa, konpromisoa eta lana.

"2019KO MAIATZAREN 26KO ILUSIO BERBERAREKIN JARRAITZEN DUGU LANEAN"

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ

ALIATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berlitasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIA: Bikan

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztzen.

Elkar Ekin Lanean, bazterkeriatik lanera

Gipuzkoako Foru Aldundiak Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du; datozen hiru urteetan, bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du xede

Bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonak gizarteratu eta lan munduan txertatzea helburu duen Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa sustatu nahi da egitasmo honekin. "Nazioartean eredu gara lan babestuan eta ekonomia sozialean, hirugarren sektore sozialeko enpresei eta kooperatibei esker, hurrenez hurren. Horixe bera lortu behar dugu enplegu inklusiboan. Lan merkatuan sartzeko eta finkatzeko zailtasun gehien duten pertsonen kalitatezko enplegua, enplegu duina, inklusiboa eskaintzeko sistema garatu behar dugu", adierazi du Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak.

Tresna nagusia, lana

Horretarako, 16 lan lerro eta 30 neurri zehatzetan banatutako estrategia landu du Foru Aldundiak, Etorkizuna Eraikiz programaren babespean eta Eusko Jaur-laritzaren 2030 Enpleguaren Euskal Estrategiarekin bat egin. "COVID-19ak eragindako krisialdi sozialari aurre egiteko palanka izango da, batetik, eta

epe ertainera begira, berriz, gizarte desberdintasunei mugak jartzeko tresna partekatua", aurreratu du diputatu nagusiak. Lana izango da tresna nagusia "bizitza duina" bermatzeko, "bazterkeria arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko" eta "bizitza proiektu bat berdintasunez garatu ahal izateko", dio diputatu nagusiak.

Estrategia zabal eta partekatu honen bitartez, erakunde, gara-

pen agentzia, enpresa eta eragileekin elkarlanean, datozen hiru urteetan, bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du helburu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Pandemia aurreko datuen arabera, lurraldean ia 37.000 lagun daude pobrezia larrian eta, gainera, egoera horretan kroniko bihurtzeko arriskua dago. Bazterkeria egoeran edo arriskuan

dauden pertsonen gain, prestakuntza baxua dutenak, langabezian kroniko bihurtu diren pertsonak, 45 urte baino gehiagorekin langabezian daudenak nahiz biolentzia matxistaren biktimak kontuan izango ditu, bereziki, Elkar Ekin Lanean estrategiak.

Dirulaguntza deialdi berria

Estrategiaren hedapenerako, datozen hiru urte hauetan 36,6 milioi euro bideratzea aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horietatik, ia 3 milioi euroko dirulaguntza deialdia onartu berri dela aurreratu du diputatu nagusiak. Deialdi garrantzitsu honek igoera nabarmena izango du (%250ekoa); izan ere, 2020ko deialdian 1,2 milioi euro zuzkidura izan baitzuten.

Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategiak hiru alorretan eragingo du, horiei lotutako sei helburu nagusi lortze aldera. Lehenik, lanean diharduten erakundeek eta eragileen sistema trinkotzeko ahalegina egingo du, lankidetzazko gobernantza eredu bat garatuz. Dagoeneko abian da strategiaren zabal-kundea gidatuko duen mahai instituzionala eta hurrengo pausoa izango da gizarte eta ekonomia alorreko eragileak batuko dituen mahaia osatzea.

Bigarrenik, enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa zabaltzeko aukerak indartzea izango du helburu Elkar Ekin Lanean Estrategiak. Horretarako, lanpostu berriak eratzeko esfortzuaz gain, inklusioaren ikuspegia landuko duten enpresa berrien sorrera sustatuko da, dagoeneko abian

dauden jarduera sendotzeaz gain. Hirugarrenik, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen aukera berdintasunez lan munduan txertatzeko aukera izan dezaten eragingo du estrategia honek, Eusko Jaur-laritzarekin eta Lanbiderekin elkarlanean.

Hori egiteko, 16 lan lerro eta 30 neurri konkretu ezarri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Besteak beste, dirulaguntzak, gizarteratze enpresa berrien sorrera, informazio sistema adimenduna, txertatze soziolaboraleko gune berezia eta halako egitasmoak sustatuko dira.

Neurri horien guztien inpak-tu gisa, hiru urtean 4.000 lagunengana iristea aurreikusten da, 2.500 lagun formakuntza bideratu eta 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatu. Gainera, 2023rako lurraldean hamabost gizarteratze enpresa edukitzea ezarri dute xede.

BAZTERKERIA ARRISKUAN EDO EGOERAN DAUDENENTZAKO 3.500 LANPOSTU SORTU NAHI DITUZTE

HIRU URTEAN 36,6 MILIOI EURO BIDERATZEA AURREIKUSI DU GIPUZKOAKO DIPUTAZIOAK

Elkar Ekinen onuradunak

CAROLINA KALEXKA

"Edozer gauza egiteko ezgaitua nengoen. Agorafobia sentitzen nuen. Lan barik nengoen. Kalexkan, sentsazio ugari sentitu nuen proiektuarekin lehen harremana izan nuenean. Inoiz halakorik egin barik nengoen: ez entxufe bat aldatu, ez egurra landu... Azken egunean, gertatutakoaz hausnartzen, ohartu nintzen ahaztu nuela noiz desagertu zen agorafobia. Gainera, ume batek bezala disfrutatu nuen; pozarren".

JOSEPH SUTARGI

"22 urte ditut. Jatorriz, marokoarra. Donostian daroatzat hiru urte. Egun, Ategorrietan bizi naiz, harrera etxe baten. Oso egun zailak pasa ditut, kale gorrian. Orain, goizez, tailerrera joaten naiz; arratsaldean, EPAr, ikastera. Roberto da nire monitorea. Hark erakusten digu arotzeria, egurra bola landu... Ofizio bat ikasita irtetea gustatuko litzaidake, lana aurkitu, familiari lagundu...".

JUAN ANTONIO EMAUS

"Extremaduran jaio nintzen. Baina Arrasaten hezi naiz. Kale gorrian nintzen eta aukera izan nuenean, Emausen eman nuen izena. Ikastaroa egin nuen, ondoren, lan egiteko aukerarekin, eta hemen nago, lanean. Oso pozik nago. Bizitzeko gogoia eman dit honek. Nire lanean gustatzen zaidana da gauzak konpontzea, margotzea, bonbilla bat jartzea...".

VANESA EDE EMAKTIVA

"Une oso gogorak pasa ditut. Inoiz ez dut lortu kontratu batekin lan egitea. Nahiz eta umeak zaintzen aritu naizen, garbiketan praktikak egin ditut... Orain nago Emaktivan. Espero dut positibotasuna lortzea, aukera gehiago izatea bizitzan aurrera egiteko, alabarentzako erreferente izatea, amak lan ondo egiten duela ikus dezala. Eta jendeak nigan sinistu dezala".



Hiru orduz luzatu zen plenoa ikusgai dago Urnietako Udalak Youtuben duen kanalean. AIURRI

Gai berari buruzko mozioak biderkatu ziren

Maiatzaren 24ko plenoan hamazortzi aztergai izan ziren, eta arratsaldeko 19:05etan hasitako plenoa gaueko 22:10ak arte luzatu zen. Hein batean gai berari buruzko mozioak eta mozio alternatiboak eztabaidatu zirelako. Ez zen adostasun zabalik lortu

Jon Ander Ubeda URNIETA

EAJ-PNVk gehiengo osoa du Urnietan, eta horren ondorioz jeltzaleak mozioak eta aztergaiak onartzeko edo baztertzeko beharrezko diren 7 botoen jabe dira. EH Bilduk eta PSE-EEk 4 eta 2 boto dituzte, hurrenez hurren. Udal batzarralditan, ordea, hitz egiteko garaian aukera berdintasuna bermatuta dago. Nor baino nor aritu ziren Mikel Pagola (EAJ-PNV), Ainara de Miguel (EH Bildu) eta Herme Gonzalez (PSE-EE) bozeramaileak.

Aho batez onartu zen Udal langileen soldata %0,9 igotzeko proposamena, eta lehen xextra ordezkari politikoen soldata igoera proposamenarekin iritsi zen. PSE-EEko Gonzalez zorrotza izan ohi da, eta oraingoan ere jokabide horri eutsi zion. Aurka agertu zen, gobernu taldeari “ez duzue merezi” adieraziz. EH Bilduko de Miguelek berari zegokion igoerari uko egingo ziola iragarri zuen, partida hori beste zereginetara bideratu behar zela iradokiz.

EAJ-PNVk igoera hori babestu zuen, eta Pagolak gogorarazi zuen iaz ez zela igoerarik aplikatu.

Preso politikoei egiten zaizkien ongietorrien harira, PSE-EEk eta EAJ-PNVk Gogoanek, Elkarbizik eta Buesa fundazioak proposaturiko mozioa babestu zuten. “Presoei egindako omenaldi publikoak amaitzea” eskaera biltzen zuen mozioak, eta baita “memoria demokratikoaren, bizikidetzaren eta indarkeriaren deslegitimazioaren balioak in-

dartzeko tokiko guneak eta horma-irudiak bultzatzeko udal-foroak eratzea” ere. PSE-EEk erabateko babes agertu zuen, eta EAJ-PNVk bere aldeko argudioetan honakoa erantsi nahi izan zuen: “biolentziarekin zirikusia duen inork ez duela plazarik merezi”. De Miguelek EH Bilduren abstentzioa iragarri zuen, eta bizikidetzaren alde daudela gogora ekarri: “Argi erakutsi dugu gure jarrera azken bi urteetan, eta aurreko agintaldian. Bizikidetzaren mahaian gaude, baina orain geldirik dago”.

Mozioa, mozioari

Plenoak aurrera egin zuen, gai berari buruzko mozioak eta mozio alternatiboak tartekatuz. Horien artean energia iraunkortasun legeri buruzkoa. EH Bilduk bere mozioa defendatu zuen, “Urnietan ez baita lanke-ta berezirik egin alor horretan”. EAJ-PNVk bere mozioan erakunde ezberdinei dei egiten die “ahalik eta proiektu gehien berrakibatzen” laguntzeko. PSE-EE bietan abstenitu egin zen. Oposizioa bi alderdiek, argudioen defentsan, alor honetan ideia falta leporatu zioten gobernu taldeari. Segurako alka-teak, aldiz, Udal azpiegitura ezberdinetan egindako instalakuntza ezberdinak zerrendatu zituen.

Merkataritza

Egoera zaila zen lehen, eta pandemia garaian okertu egin da.

Agintaldian zehar behin baino gehiagotan aritu dira Udal ordezkariak, gai honen inguruan hizketan. EH Bilduk merkataritza suspertzeko plana martxan jartzea eskatzen zuen mozioa aurkeztu zuen. Hauxe, laburbilduz, De Miguelek adierazi zuena: “Merkatarien elkarteak zail du aurrera egitea udal erakunde-babesik gabe. Udalari merkataritza mahaia sortzea eskatzen diogu eta diru partidaz gain, plan baten beharra ikusten dugu”.

PSE-EEko Gonzalezek mozioa babestuko zuela iragarri zuen: “Erabat ados gaude mozio proposamenarekin, berrakibatze plan bat eskatzen duelako. On Bizi sortzen ikusi nuen, eta hura aurrera ateratzeko plan bat faltan bota nuen Udalaren aldetik”.

EAJ-PNVren izenean Roscok hartu zuen hitza, mozio horren aurka egingo zutela iragartzeko. Plenoaren hurrengo puntuan zetorren EAJ-PNVren mozioa, eta argudioetan adierazi zuenez “merkatariekin batera egin nahi dugu aurrera, egoera zail honetan”. Bozketan, espero zen bezala, jeltzaleen mozioa atera zen aurrera eta bertan konpromiso ezberdinak zehazten ziren. Besteren artean, merkatariekin lanean jarraitzeko, eta etorkizuneko ekintzen gidari izango den Merkataritza Sustatzeko Plan Berezia martxan jartzeko.

EAJ-PNVren mozioari erantzunez, PSE-EEk “autokritika” egitea eskatu zien jeltzaleei. Laguntza lerroak bere osotasunean gauzatu gabe geratu direla gogorarazi zion. Sozialistek bezala, EH Bilduk ere merkatariekin eseritzeko eskaera luzatu zioten gobernu taldeari. EH Bilduk, gainera, udaletxean merkatarien erroldarik ez izatea leporatu zion gobernu taldeari. Roscok iragarpena egin zuen: “Udaletik plan bat egin nahi dugu, diagnostiko batetik abiatu eta ekintza lerroak izango dituen. Plan bizia izango da, eragile guztiekin batera aurrera eramanez nahi duguna”.

Eztabaida hona iritsita, eta EAJ-PNVren eta EH Bilduren bi mozioak eztabaidatuta, PSE-EEko Herme Gonzalezek honako hausnarketa egin zuen: “Merkatariei 13 botoen babesarekin lagundu beharko genieke”. Aho batez onartuko litzatekeen mozioa edo adierazpenaren beharra jarri zuen mahai ganean.

Caritas, Gurutze Gorria

Pandemiak familia batzuren eragina izan du, eta beharra dutenen artean banatzen zen janariaren inguruan mozioa aurkeztu zuten EH Bildu eta PSE-EE alderdiek, elkarrekin. Dagokion batzordean eta bozeramaileen batzordean aztergai izan ondoren, eta eragile ezberdinekin hitz egin eta gero, bi alderdiek Caritasek lehen egiten zuen funtzioa berreskuratzeko eskaera luzatu zuten. Astigarragako eredu adibide modurajarro zuten. Urnietako Udalak, antza denez, Gurutze Gorriarekin lan egiten du eta garai batean Caritasekin zegoen lan ildo geratuta dago. EH Bilduk mozioa irekia zela defendatu zuen, adostasun zabalagoa bilatzeko borondatea agertuz. PSE-EEk gaia bideratzea Udal arduradunen betebeharra zela defendatu zuen, eta Urnietatik bideratzea eskatu zuen “gure bizilagunak elikagaien bila Andoinera joan ez daitezen”. Jeltzaleek keinu bidez ukatu egin zuten hori horrela gertatu denik, baina sozialisten bozeramaileak eutsi egin zion baieztapen horri.

EAJ-PNVren izenean Pagolak mozioaren puntu askorekin bat zetozela adierazi zuen, “baina puntu guztiekin ez”. Eta euren botoekin mozioa onartu gabe geratu zen. Iragarpen bat egin zuen, halere, “Gurutze Gorriarekin lantzen ari ginen proposamena gerarazi egin dugu. Gaia landuko dugu”.

DBHko eraikina

Gaueko 22:00ak iristen ari ziren Egape ikastolako DBHren eraikina aztertzeari ekin ziotenean. Gai berari buruzko mozioa eta mozio alternatiboa aurkeztu

ziren laugarrena zen. Horrek, beraz, gai berari buruz birritan hitz egitea eskatzen du. Plenoak eskatzen duen formalismoa hautsi eta bi mozioak batera eztabaidatzen hasi zen Pagola, mozioak banan-bana eztabaidatzea saihestuz. Oposizioak aspaldi ekin zion gai honen inguruan presioa egiteari, eta gobernu taldeak lanean diharduela erantzuten die. Eusko Jaurlaritzak hainbat prozedura martxan jarri ditu, eta urte luzez kateatzen ari den gaiari irtenbidea eman nahi diete denek. Baina politikagintzan gertatu ohi denez, elkarren artean xextran aritu ohi dira.

Oposizioa bi alderdiek mozio bateratua aurkeztu zuten, eta mozioa erregistratu eta plenoa iritsi zen denbora tartean hainbat puntu bideratu zirela aitortu zuten. Orubea Jaurlaritzaren esku egoteko tramitazioa azkartzea eskatzen du oposizioak, eta baita gurasoen bileretara informazio osoa eta kontrastatua ematea ere. Jeltzaleek, ildo horretan, beste hitzekin antzeko ideari eusten zioten euren mozioan. Hori gauzatzeko proposamen berria luzatu zuten: “Proiektuaren kudeatzailea Urnietako Udal izanik, guztiok proiektuaren nondik norakoak ezagutu ditzagun, hilean behin bozeramaileen batzar bereziak antolatzea proposatzen dugu gaiaren jarraipena egin genezan”.

PSE-EEko Gonzalezek gurasoen elkarteari “argiagotzea eta garden” azaltzearen beharra jarri zuen mahai gainean. Eusko Jaurlaritza gai honetan aurretik doala erantsi zuen, eta Urnietatik baliabide guztiak martxan jartzea eskatu zuen. Bestalde, EAJk aurkeztu zuen

Udal adierazpena

Urnietako Udalak gaitzespen gogorra azaldu nahi du gure herrian berriki gertatutako eraso sexistaren aurka, eta bere laguntza nahiz begikotasun osoa adierazi nahi die eraso pairatu duten biktimei eta bere ingurukoari.

Udalak dituen informazio eta baliabide guztiak jarri ditu erasotutako emakumearen esku, baita bere onera etortzeko prozesuan behar izan dezakeen laguntza guztia ere.

Urnietako Udalak Indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publikoa emateko protokoloa aktibatu du informazioa baloratze, biktima eta bere gertukoari egokia den arreta eman ahal izateko eta beharrezkoa den koordinazioa ziurtatzeko.

Arreta egokia bideratu dela ziurtatu eta informazioa baloratu eta gero, Udalak hurrengo erabakiak hartu ditu: alde batetik, Udalaren jarrera irmoa adieraztea, argi eta garbi esateko ez ditugula inolara ere onartzen emakumeen eskubideak urratzen dituzten eraso makur hauek; eta, bestetik, herritar guztiei bide bat eskaintzea, gaitzespen argi bat agertu dezaten emakumeen aurkako indarkeriaren aurka, indarkeria ez baita soilik eraso pairatzen duten emakumeen

arazoa, baizik eta gizarte guztiarena.

Emakumeen aurkako indarkeriak erasotzaile eta biktima banakakoak ditu beti, noski, baina arazo sakon bat dauka jatorrian: emakumeak kontrolpean eta mendean izan nahi dituen ideologia. Beraz, indarkeria hori ez da ekintza bakartuen edota azalpenik gabeko gertakariaren emaitza. Aitzitik, generoen gaineko aurreiritziak, gizartearen aski errotuta dauden horiek dira, hain zuzen, halako ondorio larri eta tamalgarrien sortzaile.

Emakumeak desberdintasun eta menpekotasun materialeko egoera batera, bizitza prekario batera behartzen ditu gizartearen antolamenduak. Ez ditu herritar osotzat hartzen, gizonezkoen maila berean, eta ez dizkie aukera berak ematen oinarritzko eskubideen jabe izateko. Errealitate horren erakusgarri dira Euskal Herrian eraildako 110 emakume eta 11 adingabe, hilketa mota hauek zenbatzen hasi zirenetik. Aste honetan bertan, Urnietako kasuaz gain, beste 5 kasu ezagutu ditugu Espainiako Estatuan, eta horien aurkako gaitzespen irmoa ere erakusten dugu.

Urnietako Udalak ardura osoa du udalerrian bizi garen

pertsona guztiok eskubide guzti-guztien jabe garela bermatzeko. Beraz, ez du atsedetik hartuko ahalegin honetan, gure bizikidetzaren demokratikoaren oinarriak auzitan jartzen dituen arazo sozial larri honen irtenbidea bilatu beharra baitago guztion artean. Langintza horren barruan, ezinbestekoa da adierazpide egokiak eskaintzea Urnietako herritarrei, oro har, emakumeen aurkako eraso guztiak irmotasunez gaitzetsi ditzaten.

Erasoa jasan duten emakumeek guztion laguntasuna sentitu behar dute, ikusi behar dute guztion erantzukizuna eta ardura dela haiei laguntzea, eta erasotzaileei argi eta garbi azaltzea guztion artean mugatu egingo dugula beldurra hedatzeko estrategia zital horren ahalmena, emakumei erantzun-tresna egokiak emanez, eta gizon erasotzaileei, berriz, ekintza makur horien ondorioak ordainaraziz.

Urnietako Udalak dei egiten die herritar guztiei indarkeria sexistaren aurka agertzera, gizarte guztiaren ardura baita. Erasorik ez, erantzunik gabe!

2021eko maiatzaren 21ean.

mozioarekin haserrea adierazi zuen: “Konpromisoa eskatzen digu EAJ-k bere mozioan. Oso kezkatuta nauka horrek. Gure alderdiak hogeitertetik gorako konpromisoa erakutsi baitu, gai honekiko”. Gonzalezek be-

rriro ere adostasunaren beharra aipatu zuen: “Tamalgarria da hamahiru botoak batera ez agertzea”. Gai berari buruzko bi mozioak bozkatu ziren eta ez zen ezustekorik izan. EAJ-PNVren mozioa onartu zen, eta opo-

sizioa bi alderdiena baliorik gabe geratu zen.

Zuzenean ikusi ez zuenarentzat, hiru orduz luzatu zen Udal batzaraldia ikusgai dago Urnietako Udalak Youtuben duen kanalean.



Urnietako
udala



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.
- Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.
- Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN

w w w . a i u r r i . e u s

Erredakzioa BURUNTZALDEA

Txoko askotako pertsonen egiten dute topo herri eta inguru berean, kultura, hizkuntza, bizimolde desberdinak dituztenak, aniztasun handia eraginez. Ikuspegik (Immigrazioaren Euskal Behatokiak) 2021ean landu duen txostenari erreparatuta, EAEko 2.212.561 biztanleetatik 246.501 atzerritarra da jatorriz (%11,1). Gipuzkoan ere oso antzekoak dira proportzioak (%11,2), 81.354 pertsona jatorri atzerritarrekoak.

Buruntzaldera etorrita, jatorri atzerritarra duten biztanleen proportzioa baxuagoa da. 75.000 eskas biztanle dituen eskualde honek %7 inguruko atzerritar tasa du. Proportzioak dezente aldatzen dira herri batetik bestera. Badira %5 inguruko portzentajea dutenak (Lasarte do Astigarraga kasu) eta badira %10eko portzentajea dutenak, Hernani kasu. Argitu behar da, datu hauen arabera, atzerritartzat, Espainiako Estatutik kanpo jaio-takoa hartzen dela.

Buruntzaldean dauden atzerritarren jatorriari dagokionez, EAEkoen eta Gipuzkoakoan antzera, latinoamerikarrak dira gehienak; magrebiarrak ere ugari dira eta errumaniarrek ere badute presentzia esanguratsua, portugaldarrekin batera.

Hizkuntza ezagutzari dagokionean, nahiz eta datu zehatz eta fidagarriak ez dugun, esan daiteke gehiengo handi batek gaztelaniaren ezagutza baduela, askok hizkuntza bakar gisa dakarte, eta beste batzuek beste hizkuntza batzuekin batera. Badira gaztelaniaren ezagutza batera gabe edo oso gutxiarekin iristen direnak ere, jatorriaren arabera, eta badira, aurrez Euskal Herriko beste herriren batean egonak direlako edo, euskararen ezagutza maila txiki bat dakartenak, baina oso gutxi dira horiek.

Etorri berrien harrera

Mugimendua etengabea da. Denak ez dira udaletako errolda bulegotik pasatzen, badiarelako erroldatu gabeko biztanleak ere, baina handia da erroldan dauden alta eta baja mugimendua.

Nolako harrera egiten diegu gure herrietara datozen biztanle berriei? Azken bolada honetan kezka iturri da gai hau Buruntzaldeko udaletan eta gero eta gehiago dira martxan jartzen ari diren protokolo eta ekimenak, harrera egokia egiteko,.



Amher-SOS Arrazakeria Elkarteak Atzerritartasun Legeari buruz antolatutako informazio saioa, Biterin, 2020ko otsailean. KRONIKA

Etorri berriei harrera egokia egiteko protokoloak

Immigrazioaren gaia puri-purian dago azken urteotan. Hamaika arrazoi direla medio, milioika herritarrek beren sorterria utzi behar izaten dute bizitza hutsetik hasteko beste herrialde batean

Bide horretan, batetik, harre- ra protokoloak sortu dituzte. Joan den otsailean aurkeztu zuen berea Hernaniko Udalak, eta dagoeneko zehaztu dituzte lan- ildoak. 2020ko urtarrilean abiatu zuen prozesua Udaleko Kul- turartekotasun Sailak, eta hain- bat herritarren eta eragileren kolaborazioarekin eta ekarpene- kin osatu dute. Hernaniko Har- rera Protokolo berriak lau oi- narri ditu: pertsonen oinarritzko eskubideak bermatzea; etorri berriek herrian bizitza aktiboa izatea eta inklusioa sustatzea; jatorri eta kultura-aniztasuna bultzatzea, elkar ezagutza bi no- rabideetan emanez; eta errolda- tik harago esku hartzea.

Bestetik, udaletxeko Herritarren Harrera Zerbitzuan (HHZ) ematen diete aurreneko informazioa etorri berriei. Horrez gain, errolda momenturako protokolo zehatza ezarri nahi dute, eta baita Baliabideen Gida bat eman, Har- rera Bulegorako hitzordua eskaini eta Ongi Etorri saiarako gonbidapena luzatu ere. Era berean, Amher-SOS Arrazakeria

Elkarteak eta Udalak osatutako talde eragileak Harrera Bulego Integrala sortzea du 2021eko erronketako bat. Bertan, ahalik eta modu pertsonalizatuenean eskainiko zaio arreta etorri berriari. Baina hori ez ezik, beste hainbat helburu ere zehaztu dituzte aurtengorako, besteak beste, adierazitako Baliabideen Gida eguneratzea, aholkularitza juridikoa eskaintzea, edota laster inauguratuko den Kulturarteko Plaza Feminista.

Andoainen ere martxan dute harrera plana. Udaleko lan-sail guztiak, Gizarte Zerbitzuen gidaritzapean, etorri berriei har- rera egiteko protokoloa eta gida ari dira lantzen.

Hari horri tiraka, komeni da aipatzea Buruntzaldeko hainbat herritako ikastetxeetan azken urteetan sortu den desafio bat. Esaterako, Andoainera gerturatu, Ondarreta «jatorri immi- granteen ikastetxea» dela hela- razi dute ikastetxeko zuzendari- tzako taldeko kideek. Ikastetxe- ko langileen esanetan, «jatorriz, batez beste, %57 dira kanpoko

herrialdeetakoak; zenbait gelatan, %80ra iristen da kopurua. Mun- duko 30 nazionalitate eta kultu- ra desberdinetako ikasleak biltzen dira bertan». Horren ondorioz, diote, «ghetto txikiak» sortzen direla. Edonola ere, immigra- zioaren fenomenoari tinko heldu diote herrian. Eta horretarako jarri dituzte martxan hainbat proiektu eta egitasmo, inklusioa sustatzeko eta Andoainen herri- tar guztien arteko elkarbizitza sanaoa lortzeko.

Inklusiorako ekimenak

Horrez gain, Andoainen martxan dute 2014tik Ongi Etorri Esko- lara proiektua. Gipuzkoako 16 ikastetxetakoan dago abian, lehen mailako irakaskuntzan. Helbu- rua da eskola eta komunitate inklusiboari bidea egitea; eta, horretarako, kulturarteko eredu pedagogikoa abian jartzeko bi- delagun lanetan aritzen da. Hitz gutxitan esateko, xedea da atze- rritik etorritako familiak inte- graziora bideratzea, euskal kul- turara eta hizkuntzara hurbil- tzearen bidez. Halaber, dinami-

karen funtsezko gakoa euskara da, izan ere, ikasleria osoaren aukera berdintasunerako erre- minta nagusia bertako hizkun- tza dela uste dute.

Horrekin batera, Ongi Etorri Eskolara dinamikaren baitan, Familia laguna izeneko ekimena garatu dute. Familia euskaldun bat eta atzerritik etorritako bes- te bat harremanetan jartzen dira, bi kulturen arteko elkar trukea egiteko eta konfiantzazko harre- mana sortzeko. Horixe bera da, hain zuzen, Andoaingo Udalaren nahia; eta, hori lortzeko, herrian bizi diren kultura guztien arteko elkar trukearen aldeko apustu sendoa egin du. Horrekin bate- ra, une honetan, 20 bat familia ari dira programan parte hartzen. Modu horretan, akonpainamen- du eta elkar ezagutzarako kul- turarteko harremanak ari dira eraikitzen.

Aipatutakoaz gain, Usurbilgo Udalak hainbat urte daramatza herritarren jatorri aniztasuna- ri hurbiletik jarraitzen. Haien jairolekua kontuan hartuta ontzen ditu neurketak; Usurbilgo biz- tanleak non jaioak diren azaltzen du, bestelako zenbait aldagaire- kin batera. Nolanahi ere, azken urtean, jauzi kualitatiboa eman du. Usurbildar guztien arteko elkarbizitzarako gakoak bilatu eta bultzatu asmoz, udalerriak jasotako bi migrazio olatu na- gusiak izan ditu hizpide. Alde batetik, 1960/70eko urteetan Espainiatik etorritakoa; eta, beste alde batetik, 2000. urteaz geroztik munduko hainbat txo- kotatik iritsitakoa. Horren os- tean, migrazioaren gaineko esperientziak eta diskurtsoak jaso ditu bi euskarritan: Aztiker Ikerguneak Udalaren eskariz egindako Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza Usurbilen txoste- nean; eta, horren osagarri, Mi- grazioari maskarak erauzten ikus-entzunezkoan.

Esanak esan, Buruntzaldeko gizartearen errealtatea da kul- tura-aniztasuna, eta herri guz- tietako udalek, norbanakoek, taldeek eta baita eragileek ere, indartsu heldu diote erronkari. Izan ere, egungo altxorra dela sinesten dute; eta, herritarren arteko arrakala handitzetik urru- ti, kultura guztiak besarkatzeko eta elkarbizitza osasuntsua lor- tzeko unea dela uste dute. Orai- na aldatuz gero, etorkizuna hobea eta itxaropentsuagoa izango baita.

Erredakzioa BURUNTZALDEA

Urteak dira jatorri aniztasunaren azterketa egiten duela Usurbilgo Udalak, baina pauso bat gehiago eman nahi izan du aurtun: migrazioaren gaineko esperientziak eta diskurtsoak jaso ditu, eta Migrazioari maskarak erauzten dokumentala osatu du. Martxoaren 27an estreinatu zuen Mundualdian, jatorri aniztasunaren jaialdian; eta orain, ikusgai dago sarean: usurbil.eus web orrian, eta Udalak YouTubean daukan kanalean.

Bi migrazio prozesuri erreparatu diete bertan: 1960-1970 artean Espainiatik etorritakoari, eta 2000 urteaz geroztik munduko hainbat txokotatik etorri direnari. Bigarren horretakoa da Lizzy Mejía Funezen esperientzia: Hondurasetik etorri zen Usurbilera, familiarekin, bizitza proiektu hobe baten bila.

Badira urte batzuk Hondurasetik etorri zinela, ezta?

2014an etorri nintzen Usurbilera, 14 urte nituela. Ama hemen zegoen 3-4 urte lehenagotik, eta bi anaiekin etorri nintzen ni. Atzeritar asko zineten herrian, orduan?

Ez, duela zazpi urte gutxi ginen kanpotik etorritakoak. Baina ordutik asko hazi da immigrazioa. Zaila izan zen hasiera?

Bai eta ez. Lasarte-Orian ikasi behar izan nuen, ikasle etorri berriarentzako harrera programaren barruan. Nik nahiago nuen Usurbilen ikasi, jendea ezagutzeko. Baina gustura aritu nintzen, bazelako irakasle bat oso saiataua. Euskara ikasi genezan nahi zuen, baina era berean, kezkatzen zen guregatik: eskolan ondo ari ote ginen, integrazioa ondo ote zijoan...

Lagun bat egin nuen Lasarte-Orian, baina garai hartan, Usurbilen ez nuen inor ezagutzen, eta antolatzen ziren ekintzetan ere ez nuen parte hartzen, harremanik ez izateagatik. Eskolaz kanpoko jarduerak asko laguntzen dute, haur baten integrazioan.

Eta noiz hasi zinen, Usurbilgo jendea ezagutzen?

Lasarte-Orian ikasketak bukatuta, Donostiara joan nintzen batxilergoa ikastera, gaztelaniaz. Euskaraz egitea gustatuko zitzaidakeen, baina oraindik ez nengoen prest horretarako. Eta Donostian egin nuen topo Usurbilgo neska batekin. Zunba ikas-tarotik ezagutzen genuen elkar,



Duela zazpi urte etorri zen Lizzy Mejía Funez Hondurasetik Usurbilera, 14 urterekin. KRONIKA

"Kanpotik datorrena ez dator bertakoei kalte egitera"

LIZZY MEJÍA FUNEZ HONDURASEKO HERRITARRA

Migrazioari buruzko esperientziak eta diskurtsoak jasota, 'Migrazioari maskarak erauzten' dokumentala osatu du Usurbilgo Udalak

baina ez genuen harremanik izan; eta Donostian lagun egin ginen. Eta bere bitartez, hasi nintzen Usurbilgo jende gehiago ezagutzen, herrian gehiago ateratzen, afaltzeko elkartzene... Hori baino lehen, familiarekin egiten nuen bizitza, paseatu, mendira joan... Baina ez nintzen Artzabalen esertzen trago bat hartzera. Ez nintzen gai sentitzen horretarako.

Zertan lagundu zizun horrek?

Jende asko ezagutzen, eta jardueretan parte hartzen. Hortik aurrera, indartsuago eta seguruago sentitu nintzen, toki ezberdinertara joateko. Ahaldundu egin ninduen, herrian pertsona bat izateak jendeari esango ziona: begira, hau Lizzy da, nire laguna. Horrek erraztu egin zidan bidea. Eta adinak ere bai. Orain 21 urte dauzkat, eta ez daukat lotsarik jendearengana

joan eta nire burua aurkezteko. Beste lagun bat ere badaukat, Hodei; eta ezagutu nuen niregana gerturatu zelako Mundualdian, Usurbilgo kultura aniztasunaren egunean. Eta beraren bitartez ezagutu ditut beste hainbat.

Aurrerapausoak eman dira azkeneko urteotan, integrazioaren bidean?

2014tik hona bai, aurrerapauso dextente. Eta ez bakarrik Europatik kanpo gatozen herritarrekiko; baita Estatu osotik etorri izan direnekiko ere. 'Migrazioari maskarak erauzten' dokumen-

"ETORRI BERRIAREKIKO AURREIRITZIAK ZAILDU EGITEN DU INTEGRAZIOA"

talarekin garbi ikusi da hori. Asmoa izan da ezagutaraztea zein garen pertsona horiek, Usurbilen bizi garenak baina ikusgarritasun handirik ez daukagunak; eta horrekin batera, estigmak hautsi eta kultura-aniztasuneko elkarbizitza sustatzea herrian.

Eta lagundu du horretan?

Oraindik goiz da esateko, baina baietz uste dut. Ez da gauza bera norbait zuregana gerturatu eta bere istorioa kontatzea, edo dokumental baten bitartez jende askorengana iristea hori. Horren bitartez iritsi gara ezagutzera, adibidez, nor den ondoko bizilaguna, inoiz hitz egitera gelditu ez garena.

Herri txikietan errazagoa izan daiteke integrazioa?

Herria nolakoa den arabera, errazagoa izan daiteke integrazioa, bai. Herri txikietan, erra-

zago ezagutu dezakezu jendea, talde txikiak izaten direlako. Hirietan, anonimoagoa da pertsona bakoitza, eta etxebizitza bateko bizilagunek ere ez dute elkar ezagutzen.

Dokumentalean aipatu duzu, integrazioarako tresna egokia izan daitekeela euskara.

Hala iruditzen zait. Euskara ez da gauza bat, euskaldunon historiaren parte baizik. Nabaritu egiten dut, 'hola, buenos días' beharrean 'iepa, kaixo' esanez agurtzen baduzu norbait, alaitasunez hartzen zaituela. Errekonozimendu moduko bat da. Nik euskaraz oinarritzkoa besterik ez dakit, baina maitasun handia diot, daukan alde emozional hori transmititu didatelako. Eta baita zure hizkuntzan ezin hitz egitearen mina ere. Oso gogorra izan behar da, zarena izaten debekatzea; azken finean, euskaldunon izaeraren parte delako euskara. Jendea batzen du euskarak, eta euskaraz jakiteak horren parte egiten zaitu.

Orain gehiago hartzen duzu parte jardueretan?

Parte hartzen dut, eta bilatu egiten ditut, gainera. Interesatzen zait jakitea zer dagoen eta zer gertatzen den herrian. Noaua! aldizkaria, lehen, gainetik begiratzen nuen, ez nuelako ulertzen. Baina orain lasai irakurtzen dut, herriaren berri izateko.

Etorri berriei harrera egokia izateko, zer da ezinbestekoa?

Ulertzea kanpotik datorrena, ez datorrela bertakoei kalte egitera. Hona dator pertsona delako, bere eskubideak dauzkalako, eta bere bizi-kalitatea hobetu nahi delako. Beharrak dauzkaten pertsonak dira kanpotik etortzen direnak. Sistemak berak eta instituzioek, hainbat zailtasun ezartzen dizkigute: Atzeritartasun Legea, errolda, lan kontratu baten beharra legezkoa izateko eta osasungintzara eta hezkuntzara sarbidea izateko... Eta etorri berriarekiko aurreiritziak baldin badauzkagu, eta pentsatzen badugu lanpostua kenduko digula, lapurreta egin, herria kutsatu... Horrek guztiak zaildu egiten du integrazioa. Denak gara pertsonak, eta immigrazioa gizartearen txertatuta dago. Enpatia behar dugu, eta interesa izan jendea ezagutzeko, eta baita besteek gu ezagutzeko ere. Hori funtsezkoa da, herri inklusiboa izateko.



Andoingo Rock jaialdiaren aurkezpena egin zuten aurreko ostiralean. AIURRI

Andoingo Rock Jaialdia, ekainaren 19an

Belako, Inoren Ero Ni, Audience, Rüdiger eta Angel Kaplan eta Bublegum taldeek osatuko dute aurtengo kartela. Ondarreta ikastetxeko eta Bastero Kulturguneko eszenatokietan banatuko dira bost kontzertuak

Xabier Lasa ANDOAIN

Aforo mugaren ondorioz, gonbidapenak ekainaren 4tik aurrera eskuragarri jarriko dira. Euskal rockaren sasoi onaz gozatzeko aukera polita izango da aurtengo jaialdia.

Joan den ostiralean aurkeztu zituzten jaialdiaren inguruko gora beherak. Bertan izan ziren Txitxu Ruiz kultura zinegotzia, Iyuya kultur teknikaria, Juancar Garcia Bloody Mary promotoreko ordezkaria, eta, Felix Buff (Rüdiger), Ager Isunza eta Ruben Garatea (Audience) eta Eneko Abrego (Inoren Ero Ni) musikariak.

Txitxu Ruiz zinegotziak adierazi zuenez, jaialdira datozen zaletu guztiek kontzertuez berme guztiekin gozatzeko aukera izan dezaten prestatu da Rock Jaialdia. Iaz osasun larrialdiak jaialdia ospatzea eragotzi bazuen ere, aurten berriro heldu diote apustuari "rock zaleentzat erreferentea delako eta herriari giroa ematen diolako".

Bost kontzertu izango dira ekainaren 19an, eta kontzertu bakoitza ikusteko gonbidapenak eskuratu beharko dira. Hain zuzen, ekainaren 4tik aurrera, interneten (Kutxabankeko kutxazainetan) edo Bastero Kulturguneko leihatilan, 10:30etik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era.

Bost kontzertu

12:30 Ondarreta. Audience Gernikako taldeak 'Tolesdurak' disko berria aurkeztuko du, bere bederatzigarrena. Freskotasun handiko pop-rock estiloa lantzen du.

15:30 Ondarreta. Rüdiger artistak (Felix Buff) 'Before it's vanished' estreinako disko aurkezteko, pop-etik

folkera eta nazioarteko indi-era doan proposamen zabala.

17:45 Bastero. Angel Kaplan eta Bublegum taldea. Kaplan musikari asturiarra Estatuko power-pop onenaren erreferentzia da.

19:00 Ondarreta. Inoren Ero Ni. Euskal post-rockaren kultuko taldea da andoaindarrak, eta 'Il cercatore di perle' disko berria aurkeztuko du.

20:45 Bastero. Belako. Mungia-ko taldea, iaz aurkeztu zuen 'Plastic Drama' diskoa besapean duela etorriko da, post punk estilo indartsuarekin.

Argazki erakusketa

Ekainaren 11tik uztailaren 3ra bitarte, J.A. Areta Goñi 'Juxe' argazkilariak Andoingo Rock Jaialdiaren historia eta espiritua irudiz kontatzen dituen argazki erakusketa jarriko du, Bastero Kulturguneko erakusketa gelan.



Xabier Aranburu andoaindarraren lanak ikusgai daude Txitibar tabernan. AIURRI

Urak zizelkatutako egurra

Leitzaran haraneko ibai eta errekan topatutako egurrezko piezak Txitibar tabernan ikusgai daude

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Duela urtebete edo izan zen. Txuki zakurra lagun hartuta, uretatik egur pieza bat atera eta eskuarte artelan bat zuela ikusi zuenean. Urak -eta denborak- zizelkatutako egur pieza bat zen. Geroztik, eta gertuko laguntzarekin, Xabier Aranburu andoaindarrak hirurogei pieza atera ditu uretatik. Duela urtebeteko bisio hori erakusketatik bilakatu da, eta aste honetan hasita naturak eskaini dizkion altxor horiek ikusgai ipini ditu Andoingo Zumea plazako Txitibar tabernan.

Urak zizelkatutako egurra artelan bilakatzeko prozedura ezagutzeko, Txitibar tabernan bertan elkartu gara Aranbururekin: "Andoaindik Leitzar bihurtzeko ibai, erreka, ubide eta bazterrak zeharkatu ditut. Ertzean edo ur azpian topatu ditudan egur zatiak dira. Gehien gehienak akaziak, baina baita zumarra ere. Uretan murgildu naiz, sarri. Egur zati bat hartu eta irudi batekin lotu ohi dut. Kasu batzuetan, aurretik edo atzetik ikusita, egur pieza bakar batek zentzu ezberdinak har ditzake". Zentzu berezia izan ditzaketen horiek jaso eta artelan bilakatu ditu. Balea irudikatzen duen pieza bat du eskuarte artelan, artikulua ilustratzeko argazkian. Baina badiu adarrak, eta mendi ezagunen silueteekin lotzen dituen egur piezak. "Artelan hauek mendiari loturiko sariak banatzeko oso aproposak dira". Hortxe izan dezake atera-

bidea, Xabier Aranburuk mimo handiz landutako artelana. Mendi lasterketak, irteerak eta naturari lotutako jarduerekin zerikusia duten sariak eta omenaldietarako opari egokia izan daitezkeelako. Dekoraziorako baliagarriak dira ere, hoteletan zein jatetxeetan jartzeko. Urak zizelkatutako artelanak direlako. Horixe, Aranbururen lanaren balio erantsia.

Ur barrenetik tailerrera

Uretatik hartu eta berarekin eramaten ditu piezak. Presiopeko ura erabiliz, egurrari itsatsitako lohia eta zikina kentzen dio. Hainbat egunez lehortzen utzi, eta bernizarekin estaltzen ditu ondoren: "Dauden bezala ikus daitezke, erakusketan. Nik ezer gutxi egiten dut. Urak, denborak eta naturak egin dute ia lan osoa. Obra bakoitzaren azpialdea berdintzen dut, hori besterik ez, azpialdean marmolezko oinarria jartzeko. Artelan bihurtu aurretik, pieza bakoitza ikusten denbora ematen dut. Batzuetan tximistak botatako zuhaitz zatiak dira, eta horietako batzuk erredukatu dituzte. Ibairaren erori, eta urpean 30-40 urte egon dira. Uretan murgildu naiz eta benetako altxorak topatu ditut. Pasio bereziz bildu ditut, eta konturatu orduko dozenaka batzuk bildu nituen".

Estrainez, jendaurrean ikusgai ipini ditu Aranburuk. Txitibarren ikusgai izango da erakusketa, eta nahi duenak bertan erosteko aukera izango du.

KONTZERTUETARAKO GONBIDAPENAK EKAINAREN 4AN ESKAINIKO DITUZTE, OHIKO KANALETAN

"Eskolartekoa da lehen plaza askorentzat"

ENERITZ ARTETXE EIZAGIRRE GIPUZKOAKO BERTSOZALEEN ELKARTEA

Plazak zigortu ditu pandemiak eragindako egoera aldrebesak. Beste hainbat kultur adarretan lez, bertsolarien jarduna baldintzatu egin du bete-betean koronabirusak

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Egoerak egoera, Bertsozale elkarteak urteroko erronkari eutsi nahi izan dio: Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketari. Azken txanpan da lehia-keta, eta hilaren 28an Urnietako Saroben bilduko dira errimen maitaleak, ezohiko finala gozatzeko asmoz. Eneritz Artetxe Eizagirre elkarteak kideak azaldu ditu nondik norakoak.

Atzera begira ipinita, ez da ohiko txapelketa izan, ezta?

41 urte bete ditu aurten Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketak. Azken urteetan, bertso-afari formatuan egin izan ditugu bai kanporaketak, bai finala. Esango nuke aurtengo aldaketa nabarmenena horixe izan dela. Iazko Eskolartekoa ere aretoetan amaitu behar izan genuen, pandemia etorri zenean hasita baikin. Aurten ere ezinezkoa izan zaigu bertso-afari formatuari eustea, elkarteak itxita zeudelako eta jatetxeek ordutegi murriztua zutelako.

Ikus-entzuleei dagokionez, eragina izan al du koronabirusak kopuruan?

Jaitsi da, bai. Lau kanporaketa izan dira orotara, bada, lau horietatik hiru ospatu dira eremu gorrian ziren herrietan. Hala, bertakoek bakarrik izan dute aukera joateko. Baina, dena dela, areto txikiak bilatu nahi izan ditugu, bertsolari gazteak izanik, eremu goxo batean senti daitezzen.

Gustora aritu al dira bertsolariak?

Xelebrea izan dela diote. Finean, bertso-afariekin alderatuta, arraroa da. Ezberdina da mahai bueltan kantatzea edo oholztan aritzea bertsotan. Horregatik, oholza txikiak bilatzen saiatu gara. Bertsolariak bazekiten sariketa egiteko modu bakarra horixe zela, eta ez egitea baino gehiago nahiago izan dute formatu horretan abestu.

Nola eragin du bertso-eskolen dinamikan pandemiak?



Aurtengo txapelketako irudia. BERTSOZALEEN ELKARTEA

Batez ere, eskola barruan egiten diren haurren bertso-eskolei eragin die, izan ere, bertako protokoloek ez dute gauzatzea baimendu. Ondorioz, hainbat herritan, Urnietan, kasu, ezin izan da horrelakorik egin. Aldiz, eskolaz kanpoko bertso-eskolak, oro har, mantendu dira, eta saiatu gara egoerara egokitzen. **Dena den, lortu duzue Eskolarteko txapelketa egitea. Zergatik da garrantzitsua?**

14-18 urte bitarteko gazteek hartzen dute parte. Egun, oholztaz oholza aritzen diren bertsolari ezagun asko igaro dira Eskolarteko Txapelketatik. Horregatik, gazteentzat ere bada erakuslehoi, bertsolari gazte askorentzat Eskolartekoa da lehen plaza. Horrez gain, gazteen artean sortutako harreman-sareak badira etorkizunean bertso-mugimenduari eragingo dioten hartu-emanak, izan plazaz plaza batera arituko direlako, izan bertsozaleak izango direlako.

"Gu bertsotan" proiektuaren esku-tik hamaika ikastetxetako ikasleek dute tarte bertsolaritzatik eta bertsolaritzaz jarduteko?

Hezkuntza arautuan gauzatutako egitasmoa da, ia Gipuzkoa

osoko herriek parte hartzen dutena: orotara, 15 irakasle ia 12.000 bat ikasleri ematen diete klase Gipuzkoan. Oinarritzko ezagutza zein zaletasuna eskolan lantzen da egitasmoaren bidez, eta jarraitu nahi duenak bertso-eskolara egiten du salto. Lehen, etxeetan, bertsozaleak transmititzeko aukera gehiago zegoen; aldiz, gaur egun, ikasle askok lehen harremana bertsolaritzarekin proiektu horren bidez dute.

Bertso-udalekueetan ere bada euskaraz eta bertsolaritzaz gozatzetik.

Urtero antolatzen dira, nahiz eta egoera medio, iaz ezin izan genituen egin. Alabaina, arrakasta itzela izan ohi dute bertso-udalekuek. Aurten, bi izen-emateko txanda daude: oraintxe amaitu berri da bertso-eskolako ikasleen zein Bertsozale elkarte kideena; aurki, berriz, bigarren deialdia irekiko da, hortik kanpoko edozeinek eman dezaten izena. Iragan urtean ikasle asko gelditu ziren bertso-udalekuek gogoz. Eskolartekoak betetzen duen xedeetako bat betzen dute udalekuek ere: Euskal Herri osoko bertsozale gazteak elkartzea.



Tenpera Donostiako taldea Urnietan ariko da. TENPERA

Poxta Zahar elkartearen egitaraua asteburuari begira

Maiatzaren 29an, larunbata, bi hitzordu berezi antolatu ditu Poxta Zahar elkarteak

Erredakzioa URNIETA

Gazte Festak ziren ospatzekoak asteburu honetan Urnietan. Alabaina, iazko joerari eutsi behar diote herritarrek, beste urtebetez, pandemiak eragindako egoerak horrela eskatuta.

Makina bat kultur ekimen gelditu dira bertan behera azken urtean, baina, egoerak egoera, Poxta Zaharrek keinu berezia egin nahi izan die uda atariko festei. Hala, maiatzaren 29an, arratsaldeko 18:00etan bi kontzertu izanen dira herriko Plazido Muxika plazan: Kyxo eta Tenpera musika taldeak arituko

dira oholza gainean larunbatean. Herrian bertan sortutako taldea da Kyxo. Lehenago beste hamai-ka proiektutan aritu ostean, batu egin da boskotea, Euskal Herrian ohikoa ez den musika sortzeko.

Hiru gaztek osatzen dute Tenpera taldea eta Rock alternatiboa da beren erritmoaren oinarri, 90. hamarkadako doinuen eraginarekin.

Antolatzaileek gogorarazi dute, uneoro, osasun-neurriak errespetatu beharko direla, eta hori dela eta, 100 pertsonakoa izango dela aforoa.



AIURRI

Lamiak eta Lloronak

Erakusketaz gozatzeko azken egunak dira, maiatzaren 28a izango baita azken eguna. Erakusketaren baitan, antolatzaileek bigarren ekitaldia antolatu zuten aurreko ostiralean. Arregileen topaketa izan zen, eta bertan artistek euren ikuspegia agertzeko aukera izan zuten. Bigarren aldiz antolatu du ekimena Ongi Etorri Eskolara ekimenak, Udalaren laguntzarekin.

Andoain kanporatu egin dute Herriartekoan

HERRIARTEKOA Andoaini hasieratik aurkari zaila suertatu zitzaion, baina maila ona erakutsi zuten lehen partidatik amaierara arte. Guztira, sei partida jokatu dituzte eta horietatik bi irabazi



Eneko Beloki pilotaria. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Amaitu da Herriartekoa Andoain herriarentzat. Larunbatean jokatu ziren itzulerako hiru partidak Tolosaren aurka. Lehen partida Beroz-Gaztañaga bikote andoaindarrak irabazi zuen (22-4). Kolorerik gabekoa izan zen, eta andoaindarrak maila bikaina erakutsi zuten partida osoan. Bigarren partida bestelakoa izan zen, izan ere, aurkariak mendean hartu zituzten Eneko Beloki eta Iker Uria (10-22), ahalegin handia egin zuten arren. Hirugarren partidako garaipena ere Tolosarena izan zen (8-22). Norgehiagoka interesgarria izan zen, baina Egiguren aurkariak partida asko zaildu zuen, Artola eta Usandizaga mendean hartu arte.



Imanol Usandizaga pilotaria. AIURRI



EUSKALDUNA

Denboraldi amaierako garaipena

FUTBOLA Euskaldunako ohorezko mailako kadeteek garaipenarekin amaitu zuten denboraldia Lasarteko Ostadar taldearen aurka (2-1). Taldeak azken aurreko postua eskuratu zazpi punturekin. Ez da urterik onena izan urdinrentzako, baina ezohiko denboraldia garaipenarekin amaitzea lortu dute.



EUSKALDUNA

Denboraldi gazi-gozoa

FUTBOLA Jubenilen lehen taldeak ezin izan du garaipenarekin amaitu denboraldia. Hala ere, hirugarren postua lortu duten bost partida irabazita. Bestalde, ohorezko jubenilak azken aurreko postuan geratu dira soilik bi partida irabazita.

Denboraldi interesgarria

FUTBOLA Euskaldunako Gorengo mailako jokalariek denboraldi ona egin dute aurtengoan, baldintza zailetan burutu dena. COVID-19ak kirol-jarduera oro zaildu du. Bederatzi partida jokatu dituzte; eta horietatik berdinketa bat eta lau partida irabazi dituzte. Gauzak horrela, 13 punturekin bosgarren postua eskuratu dute. Datorren urteari begira emaitzak hobetzea espero da.



EUSKALDUNA



ITALIAKO GIROA
AIURRI.EUS | @aiurri





Ansa urnietarra, Galarretan. UTS

Ansa eta Goikoetxea urnietarrak, finalaurrekoan elkarren aurka

ERREMONTEA Sagardoaren Txapelketa ETB1eko "Erremontari" saioan ikusgai izango da, astelehenean

Erredakzioa ANDOAIN Ansa-Labaka, Goikoetxea-Aizpuru, Segurola-Larrañaga eta Urriza-Zaldia bikoteek jokatu dituzte finalaurrekoak. Ansa II-Labaka bikoteak azken jardunaldian ere irabazi egin zuen Goikoetxea-Aizpuren aurka (30-22). Partida bera jokatu da finalaurrean. Beste finalaurreari dagokionez, Segurola eta Larrañaga hirugarren postuan sailkatu dira eta Urriza eta Zaldia izango dituzte aur-

kari. Bestalde, Juanenea-Zubiri eta Urrutia-Barrenetxea bikoteak kanporatuak izan dira. Ezusteko txapelketa izaten ari da Sagardoarena, izan ere, Barrenetxea erremontista trebatua kanporatua izan da. Eta txanponaren bestaldean, Ansa eta Labaka, partidaz partida lehia-keta bikaina jokatzeko ari dira. Gainera, Ansa eta Goikoetxeak elkarren aurka jokatu dute, biak ere herrikideak eta lagunak izanik.



ZUMEATARRA

Aritzaleku triatloia

TRIATLOIA Larunbatean 52,5 kilometroko lasterketa egin zuten Zumeatarra kirol taldeko zenbait kide; horien artean Iñigo Duartek, Eñaut Galarragak, Imanol Maizak, Garikoitz Arregik, Aitor Muruak, Nagore Arizagak, Iban Guzmanek eta Jose Maria Condek. Distantzia olinpikoan Iñigo Duartek egin zuen denbora gutxien eta 10. postua eskuratu zuen. Sprint distantzian Nagore Arizaga izan zen Zumeatarrako onena, 15. postua eskuratuta.



Urnieta KEko jokalaria. UKE


Jubenilak azpitxapeldun Gipuzkoako txapelketan

ESKUBALOIA Norgehiagoka bizia eta ona jokatu zuten arren, garaipenaren atarian geratu ziren

Erredakzioa URNIETA Gizonezkoen jubencil taldeak maila handia erakutsi zuen lehen minututik. Atsedendia iritsi baino lehen lau goleko aldeagatik irabazten jarri ziren, 11-15. Hala ere, eibartarrek segituan eman zioten bira markagailuari; erasoan asmatzen hasi ziren eta defentsa sendoa erakutsi zuten. Gauzak horrela, bi taldeen arteko aldea murrizten joan zen eta, azkenean, Eibar taldeak aurre hartu zuen.

Jubenilak garaile azken lehian Emakumezkoen jubenilek garaipenarekin amaitu dute denboraldia, Ingou Arrasate taldea mendean hartu ostean (21-9). Urnietarrak gehiago izan ziren jokoan eta hala erakutsi zuten markagailuan. Esanak esan, bigarren fasean partida guztiak irabazi dituzte eta Gipuzkoako txapelketan zazpigarren postua eskuratu dute.

Seniorren lehen garaipena igoera fasean Urnieta Quel Abogados taldeak igoera faseko lehen garaipena eskuratu zuen Ereintza Beissier taldearen aurka (16-19). Igoera lortzeko lehian Zumaiaiko Pulpo taldearen aurka irabazi beharko dute hurrengo partidari.



GONZALEZ

Barberenaren itzulera

ATLETISMOA Lesio baten ondorioz atletismotik 18 hilabetez baztertua egon ondoren, Xabier Barberenak Euskadiko txapelketan parte hartu du asteburuan. Ez hori bakarrik, zilarrezko domina lortu zuen Durangon 1.500 metroko modalitatean. Orain arteko geldialdia gainditu du, horrela.



GAZTELEKU

Finalera jauzi egin dute

PALA Andoainek oso zaila zuen Donostiaren aurka irabaztea, baina iragarpenak alde batera utzi, eta Herriarteko finalerako txartela eskuratu zuen. Bi partida jokatu ziren eta finalera igarotzeko ezinbestekoa zen biak irabaztea. Tentsio handiko partidak izan ziren Arrate frontoian jokatu zirenak.

Andoaindarrak nagusi

GOMAZKO PALA Herriartekoan Andoainek aise gainditu zuen Zestoa, haren aurkako norgehiagoka guztiak irabazi zituelako; izan ere, joaneko eta itzulera partidak guztiak irabazi zituen. Datorren larunbatean, eguerdiko 14:30ean hasita, Donostiaren aurka jokatu dute andoaindarrek, Loiola auzoko frontoian. Kanporaketa zaila eta bizia izatea espero da.



GAZTELEKU

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 27

ANDOAIN IkusZirkus

"Express" ikuskizuna.
19:00, *Bastero*.

ANDOAIN Dirulaguntzak

Kultur elkarteek urteko jarduera aurrera ateratzeko laguntza eskatzeko aukera izango dute. Argibideak Bastero Kulturgunean.
Azken eguna: Ekainak 4.

ANDOAIN Erakusketa

Espazio kuttunak, lau artisten eskutik: Iker Valle, Oaia Peruarena, Patxi Laskarai, Gonzalo Etxebarria.
Azken eguna: Ekainak 5.

ANDOAIN Euskara

AEK-k mintzataldeak osatu nahi ditu udan. Parte hartzea doakoa da. Informazio gehiago Andoaingo AEK euskaltegian. Telefonoa: 943 59 17 04.
Azken eguna: Ekainak 11.

URNIETA Aurre-matrikulazioa

2021-2022. ikasturtean euskara ikasteko aurrematrikulazio-epea zabalik dagoela adierazi dute AEK euskaltegitik. urnieta@ae.eus / 662 338 747.
Azken eguna: Ekainak 25.

OSTIRALA 28

URNIETA Bertso saioa

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala. Finalisten artean Ekain Tolaretxipi hernaniarra eta Jon Mendiluze irurarra. Sei bertsolari taularatuko dira.
19:00, *Sarobe*.

ANDOAIN IkusZirkus


"Koselig" ikuskizuna.
19:00, *Bastero*.

ANDOAIN Ekitaldia

Andoaingo Sarek antolatuta, Ainhoa Ozaeta preso gogoan hartuko duen ekitaldia.
19:00, *Goikoplaza*.

ANDOAIN Erakusketa

"Lamiak eta Lloronak" San Martin parrokiako arkupeetan. Kulturartekotasuna, ardatz.
Azken eguna: Maiatzak 28.



Maddalen Arzallus bertsolaria. BASTERO

ANDOAIN Bertso saioa Goiburun

Punttukak, Segak eta Udalak antolatuta, bertso saioa Goiburun. Izen-ematea: 630 492 945: Gai-jartzailea Ion Beloki izango da eta haren esanetara kantuan ariko dira Unai Mendizabal, Maialen Akizu, Maddalen Arzallus eta Joanes Illarregi.
Maiatzak 30, igandea. 12:00, Goiburuko ermita.

ANDOAIN Aisialdia

"Leitzaran abentura" eta "Goazen jolastera" egitasmoak martxan jarriko ditu Udalak. Informazio gehiago Allurralde kiroldegian.
Azken eguna: Maiatzak 28.

LARUNBATA 29

URNIETA Kontzertua

Tenpera eta Kyxo musika taldeak, Poxta Zahar taldeak antolatuta.
18:00, *Plazido Muxika plaza*.

ANDOAIN IkusZirkus

"Akelarre" ikuskizuna.
19:00, *Ondarretako jolastokia*.

IGANDEA 30

URNIETA Haur antzerkia

"Adi, grabatzen, ekin!". Muxiri zinema asko gustatzen zaio, eta Tomax filma bat egiteko konbentzituko du.
18:00, *Bastero. 3 euro*.

ANDOAIN IkusZirkus

"Carillo" ikuskizuna.
19:00, *Ondarretako jolastokia*.

ASTELEHENA 31

ANDOAIN Merkataritza

Ostalaritza guneeetan 5 eta 40 euro arteko sariak irabazteko aukera.
Azken eguna: Maiatzak 31.

ANDOAIN, URNIETA Matrikulazioa

Lanbide Heziketako zikloetan izena emateko epea zabalik dago.
Epea: Maiatzak 31-Ekainak 18.

OSTIRALA 4

ANDOAIN Antzerkia

"Konpromisoa": Joseba Apaolaza, Ramon Agirre eta Zuhaitz Gurrutxaga. Komedia Txalo konpainiaren eskutik.
19:00, *Bastero*.

IGANDEA 6

URNIETA Antzerkia

Bi bikotek etxea utzi behar dute: Pacok eta Emiliak 2011n, eta Mari Carmenek eta Emiliok 1961ean. Bi etxe-aldaketa, 50 urteko aldearekin. Perigallo teatro konpainiaren eskutik.
19:00, *Sarobe*.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Aquello que desean mi muerte**


Lar., 29. 19:00.
Ig., 30. 19:00.
Astel., 31. 19:00.
Ikuslearen eguna.

Maya erlea


Euskarazko filma
haurrentzat:
Lar., 29. 12:00.

Paddington 2

Euskarazko filma
haurrentzat:
Ig., 30. 12:00.



SINOPSIS

**Maya erlea: Ezti jokoak**

Zuzendariak: Noel Cleary, Alexs Stadermann, Sergio Delfino.
Generoa: Marrazki bizidunak. **Herrialdea:** Australia (2015).
Hizkuntza: Euskaraz. **Iraupena:** 81 min. **Prezioa:** 2,90 euro.

Ezti jokoak, zinema euskaraz

Maya erle gogotsuak hanka sartu du Buzztropolisko enperatrizarekin eta bat egin beharko du intsektu errebeldeen talde batekin ezti-jokoetan lehiatzeko eta beraien erregina eta

erlauntzeko kideak salbatzeko. Mayaren taldearen aurkari nagusiak, ez dizkio gauzak batera erraz jarriko, ahal duen guztia egingo baitu, baita tranpak ere, hari irabazteko. Has daitezela Ezti-jokoak!.

SINOPSIS

**Aquello que desean mi muerte**

Zuzendaria: Taylor Sheridan. **Herrialdea:** AEB (2021). **Aktoreak:** Angelina Jolie, Nicholas Hoult, Finn Little, Jon Bernthal, Aidan Gillen, Tyler Perry... **Generoa:** Thrillerra. **Iraupena:** 100 minutu.
Hizkuntza: Gaztelania.

Sua tartean dagoen thrillerra

Connor nerabea hilketa baten lekukoa da. Hannah suhiltzailearen laguntza izango du,

atzetik segika dituen gaizkileetatik ihes egiteko. Sute batek kalte gehiago eragin ditzake.



Andoaingo Banda Errepublikanoak, Miranda pasealekuko Alfaro parkean.

Banda Errepublikanoaren berragerpena

Andoaingo Banda Errepublikanoa Ategorrietako biktimen aldeko ekitaldian ariko da

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo zenbait kantarik eta musikarik osatzen duten Banda Errepublikanoak Donostian emanaldia eskainiko du, larunbat honetan. Orain 90 urte Ategorrieta auzoan guardia zibilak hil zituen zazpi langileen aldeko kultur egitarauan parte hartuko du Bandak.

1931ko maiatzaren 27an, itsas langileek antolatuta, 2.000 lagun ez osatutako manifestazioa Pasaian bildu eta Donostiarantz abiatu zen. Ogia gure *seme-ala-bentzat* leloa zeramaten, eta askatasuna eskatzen zuten aurreko egunetan atxilotako lan-kideentzat. Haur, gazte eta helduek osatutako kale protesta Ategorrietako erlojuaren parera iritsi zenean, guardia zibilek tiroka eraso zioten. Zazpi lagun erahil zituzten bertan; Pasaian bizi ziren arrantzaleak ziren

guztiak. Gertakizun haiek oroitze eta biktimei gorazarre egiteko antolatu dira ekitaldiak larunbat honetan, hain zuzen.

Ategorrietako ekitaldietan parte-hartzeko gonbidea jasota, berriro martxan jartzera animatu da Banda, osasun alarma egoera dela eta urte eta erdiz geldirik egon ostean.

Kantutegi antifrankista bizi-berritzeko eta plazaratzeko jaio zen Banda, eta asmo horri helduko dio Ategorrietan ere. 11:00etan, Letaman gaztetxean, Josetxo Otegi "Ategorrietako sarraskia" hitzaldia eskainiko du lehenbizi. Eta ondoren, Ategorrietara kalejira egingo dute Andoaingo Banda Errepublikanoarekin. 13:15etan, Ategorrietan bertan, omenaldia eskainiko zaie biktimei. Ondoren, Uliako seminariora joango dira. Arratsaldean kontzertuak iragarrita daude.



Amondarain Kutxa aretoan. KUTXA

Amondarainen erakusketa berria Kubo Kutxa aretoan

"Irudiak astintzea" Jose Ramon Amondarainen lanari buruzko atzera begirako lehen erakusketa da

Erredakzioa ANDOAIN

Erakusketak Andoaingo artista-ren hogeita hamar urtetik gorako ibilbidea jasotzen du, eta berrehun pieza baino gehiago biltzen ditu, artistaren sortze etapa ia guztietakoak. Francisco Javier San Martín komisarioak eta Amondarainek berak aukeratu dituzte hainbat serietako lanak. San Martinen hitzetan, artistaren lana zera da, "hiru hamarkadako begirada arretatsua munduari eta gizarte garaikideari, baina baita artearen barnealdeari, artista garaikideen lanari edo tradizio modernistari".

Kutxa fundazioak zabalduetako oharren arabera, mimo handiz prestaturiko erakusketa da: "Artelane Kubo Kutxa aretoko espazioa betetzen dute, haren jabe bihurtuta, bertan habitata; Amondarainek ongi pentsatuta aukeratu du piezen ko-

kapena, erakusketa batek izan behar duenari buruz buruan darabilen ideiarekin bat datorren emaitza lortzeko. Eskulturen baso estrategikoki diseinatu batek hartutako espazioaren ideia, edo piezen multzokatzea".

Ibilbide oparoa

Hainbat aretoetan erakutsi du bere lana andoaingarrak: Rekalde Aretoa, Bilbo; Guggenheim Museoa, Bilbo; Museo Patio Herreriano, Valladolid; DA2, Domus Artium, Salamanca; CAAM, Las Palmas Kanaria Handikoa; Palais de Beaux-Arts, Brusela; La Casa Encendida, Madril; Koldo Mitxelena, Donostia; Museo Galdiano, Madril; Artium, Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa, Vitoria-Gasteiz. Nazioarteko azoka batean baino gehiagotan parte hartu du.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Nora Mendizabal Ezeiza
Zorionak Nora! Jarraitu pilotan asko jokatzen! Muxu handiak, amona Miren eta aitona Estebanen partetik.

Urte askoan!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

- www.aiurri.eus
Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:**
619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **943 300 732**



ANDOAIN

Zorionak gure maitiak

Aroak 8 eta Libek 6 urte betetzen dituzte maiatzaren 29an eta ekainaren 6an. Muxu potoloak etxekoan partetik!!!

TELEFONO ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.

Urnieta: 943 006 680.

Larrialdiak: 943 461 111.

Osasun Aholkuak: 900 203 050.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak.
693 692 823
665 719 827

SALGAI

Lokal komertziala salgai Andoaingo Juan Bautista Erro kalean. 51 m², solairu bikoitza

egiteko aukera. 61.000 euro. **687 851 740** Edurne.

EROSI

Andoain inguruan **lur sail** eder baten bila nabil. Cesar Sistiaga.
620 720 694

MERKATU TXIKIA:

diseinua@aiurri.eus
619 163 537
Arantzibia 4-5, behea. ANDOAIN



- **Astero zozketa: KMO produktuez betetako otarra.**
- **Aurreko 2 asteetako irabazleak: Jon Iraola eta Ainara Arratibel.**





Isabel Santa Cruz Aldama-Tapiako langilea da. AIURRI

TicketBAI, bai ala bai

Tiket bidezko salmentan aldaketa handiak datoz. Nahitaez ezarri behar direnak, gainera. Europar Batasunetik datorren irizpidea da, eta Euskadin Foru Ogasunak aldaketa bideratzen ari dira. 2022an hasita derrigorrezkoa izango da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Eskuko telefonoak eta ordenagailuak eguneratu egin behar izaten dira, tarteka. Eta, beharrezkoa denean, aplikazio eta sistema berriena eskaintzen duen aparailu osoa berritzen da. Logika bera hori aplikatu behar da fakturazioari eta tiket sistemari dagokionez, 2022rako aldaketa handia datorrelako. Iraultza izango da tiket bidezko saltzaileentzat. Eta, ogasun erakundeak tarteko egonik, sistema berri horren erabilera derrigorrezkoa izango da.

Aldaketa handiak datoz. Izan okindegia, taberna, azokan postua duen dendaria, fisio zentroa, garraiolaria edo liburu-saltzailea. Jarduera ekonomiko guzti-guztiei eragingo die sistema berriak. Ez da salbuespenik egingo, eta nahitaezkoa izango da.

Europar Batasunetik datorren agindua da, eta Gipuzkoan Foru Ogasuna eta Eusko Jaurlaritzak dira egitasmo honen sustatzaileak. TicketBAI izena du egitasmoak, eta hilabete gutxiren bueltan denon ahotan izango da. Etorkizun hurbila, garaiotan, nahi baino lehen iristen da. Eta etorkizun hurbil horretarako prestatzeko lanean hasi beharra dago. Beranduegi izan gabe. Aldama-Tapiak saio presentziala antolatu du Bastero Kulturgunean, sistema berri honi buruzko xehetasunak eskaintzeko. Ostiral honetan izango da, arratsaldeko 15:00tan hasita. Deialdia irekia da, baina bertan parte hartzeko izena eman beharra dago. Ez da ohikoa horrelako hitzaldi bat antolatzea, baina Aldama-Tapiakoek behar-beharrezkoa ikusten dute. Oraindik orain bezero askok salerosketen fakturaziorako eza-

rriko den sistema berria urruti antzera ikusten dutelako. Isabel Santa Cruz Aldama-Tapiako gestoriako langilea da: “Aldaketa handia dator, eta horretarako prestatzen hasi behar dugu. 2022ko urtrilean aholkularitza-enpresetan eta gestorian ezarriko da. Martxoaren 1ean profesionalen txanda izango da, eta maiatzaren 1ean merkatariena eta ostalariena. Urrian, bestalde, garraiolariak, higiezin enpresak eta abenduan fabrikazioari loturikoak”.

Ukabi group enpresako ordezkariak ere parte hartuko dute

**ALDAMA-TAPIAK
HITZALDIA ANTOLATU
DU BASTERON,
OSTIRAL HONETAN
15:00ETAN HASITA**

Aldama-Tapiakoekin batera. Sistema berria martxan jartzeko softwarea garatu duen euskal enpresetako da, eta xehetasunak eskaintzera hurbilduko dira. Beharrezkoa ikusi dute hitzaldia antolatzea, negozioak betebeharrak berriak aktibatzen. Isabel Santa Cruzek egungo sententzia zein den deskribatu du: “Oro har, norberarekin ez doan kontua dela dirudi. Jarrera hori antzematen da, baina 2022ko martxoa segituan iritsiko da. Eta bapatean negozio guztiek internet eta software egokitzapenak egin, sinadura elektronikoa ezarri eta TicketBAI sistema berria barneratu, erabili eta eguneroko zereginetan txertatu beharko dute”.

Salmenta eragiketa guztien aitorpena egitea, horixe da egitasmo honen atzean dagoen xede nagusia. Eta asmo horren atzean helburua bikoitza da: Zergadunei betebeharrak errazteko baliabideak jartzea eta iruzur fiskala saihestea. Euskadiko Foru Ogasunak asmo hori eufemismorik gabe azaldu dute: “instituzioak beren laneko sistema eta prozedurak etengabe hobetu eta modernizatzeko prozesu batean murgildurik daude, zergadunei beren betebeharrak betetzea ahalik eta gehien errazte aldera eta, aldi berean, iruzur fiskalaren aurkako borrokan eraginkortasuna eta efizientzia areagotzeko”.

On-line bidezko aukerak biderkatu eta hobetu egin dira, urteotan. Europak aurrera egiteko erabaki irmoa hartu du, egungo egoera teknologikoak une honetan ezartzeko aukera ematen duelako. Argudioa behin eta berririo errepikatzen dute: “zergadunari erraztasunak ematea eta zerga arloko kontrola hobetzea”.

Eta nor da zergaduna? Kasu honetan, adibide askoren artean, azokan postua duen dendaria, tabernaria, fisioa edo liburu-saltzailea dira. Guzti-guztiei sistema berriak lan egiteko egokitzapenak egin beharko dituzte. Jarduera ekonomikorako tiket edo faktura sistema erabiltzen duen edonor, beraz. Zehatz-mehatz, Aldundiaren ahotan: “Proiektuak eragingo dio ekonomia-jarduerak garatzen dituzten eta PFEZ-IRPFan edo sozietateen gaineko zergan Euskadiko Foru Ogasunen araudiaren baitan dauden pertsona eta entitate guztiei”.

Nolakoa izango da tiket/faktura berria?

Hasteko eta behin internet konexioa beharko da, eta segidan internet eta fakturazioa bermatzeko aukera duen gailu elektronikoa (eskuko telefonoa, tableta, balantza aurreratua eta ordenagailua, aukera askoren artean). Honi lotuta, fakturaziorako softwarea edo programa egokia beharko da. Segidan, TicketBAI sistema berriarekin salerosketa lau urratsetan emango da:

- Saltzaileak erosketa bakoitzeko fitxategi bat sortuko du, horretarako gaituta dagoen programa edo softwarea erabilita. Fitxategi bakoitza TicketBAI fitxategia izango da.
- TicketBAI fitxategia elektronikoki sinatu beharko da. Egungo sinadura elektronikoren aldaera berria da, baina behin konfiguraturik sistema eragileak sinadura hori automatikoki egingo du.
- Bezeroarentzat eta administrazioarentzat baliagarria den faktura sortuko da, formatu fisikoan zein elektronikoa. Besteak beste, faktura horretan identifikatzaile bat eta QR kode bat agertuko dira. Salerosketaren arrastoa jarraitzeko baliagarria izango da, edozein produktuk duen barra-kodearen parekoa.
- Faktura hori sortzean, zuzenean jasoko du Gipuzkoako Foru Ogasunak.

Ezarpen-egunetik aurrera igorritako faktura guztietan aplikatu beharko da sistema berria. Ez da modu atzeraeraginean aplikatuko. Berria den egitasmoekin gertatzen den bezala, probatzen hasi aurretik korapilatsua dirudi. Baina behin martxan dagoela, egitasmoa automatikoki egingo da. 2021ean zehar borondatezko epealdia zabaldua dago, eta 2022an hasita nahitaezkoa izango da. Jarduera ekonomikoetako profesional askok harremana dute gestoria eta kontu-hartzailetzan espezialitaturiko zerbitzuekin. Informazio egokiaren bila hasi beharko da, hilabeteotan.

**“ALDAKETA HANDIA
DATOR, ETA
HORRETARAKO
PRESTATZEN HASI
BEHAR DUGU”**